

1

BIZI BALDINTZAK ETA BIZI KALITATEA EUSKAL AE-N

CONDICIONES Y CALIDAD DE VIDA EN
LA C.A. DE EUSKADI

ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
2. LA PERSPECTIVA DE ANÁLISIS DE LAS ENCUESTAS DE CONDICIONES DE VIDA
 - 2.1. Breve justificación metodológica
 - 2.2. Metodología y técnicas de análisis
3. LAS CONDICIONES DE VIDA 1989-2004: DIAGNÓSTICO GLOBAL DE LA SITUACIÓN
 - 3.1. Condiciones materiales y recursos instrumentales
 - 3.2. Vida relacional
 - 3.3. Seguridad percibida, calidad del medio residencial y autonomía funcional
 - 3.4. Ocio, tiempo libre y calidad de vida
 - 3.5. Accesibilidad y movilidad obligada por razones de trabajo
 - 3.6. Corresponsabilidad doméstica, participación y vida asociativa
4. A MODO DE RESUMEN

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. BIZI BALDINTZEI BURUZKO INKESTEN ANALISI-IKUSPEGIA
 - 2.1. Justifikazio metodologikoa labur-labur
 - 2.2. Metodologia eta analisirako teknikak
3. BIZI BALDINTZAK 1989-2004: EGOERAREN DIAGNOSTIKO OROKORRA
 - 3.1. Baldintza materialak eta baliabide instrumentalak
 - 3.2. Harremanak
 - 3.3. Segurtasun-ustea, bizitzeko inguruaren kalitatea eta autonomia funtzionala
 - 3.4. Aisialdia, denbora libre eta bizi kalitatea
 - 3.5. Gertutasuna eta lanak eragindako joan-etorriak
 - 3.6. Etxeko ardurakidetzak, parte hartzea eta bizi asoziatiboa
4. LABURPENA

1. INTRODUCCIÓN

Condensar en una sola mirada la naturaleza y características de las transformaciones habidas en los últimos años se presenta como una tarea harto difícil y compleja. Estamos acostumbrados y acostumbradas a ver los cambios diarios como pequeñas modificaciones inscritas en una rutina sin fin, construida sobre la base de la repetición de comportamientos que dan una aparente sensación de linealidad temporal, sin apenas rupturas. Esto es debido, en parte, a la estructura psicológica de los seres humanos que huye de aquello que le genera incertidumbre, y que trata de eliminar lo que considera riesgo y puede poner en solfa la estabilidad personal y social.

Sin embargo, cuando contemplamos desde la atalaya que proporciona un instrumento como la Encuesta de Condiciones de Vida, las modificaciones que han tenido lugar en los últimos años, nos damos verdaderamente cuenta de la magnitud y de la profundidad de las transformaciones experimentadas en uno de los períodos más intensos de nuestra reciente historia. A pesar de la aparente tonalidad uniforme que recubre el día a día y que da un sentido de continuidad a la intrahistoria de la C.A. de Euskadi, el período 1989-2004 al que nos referimos ha sido realmente traumático. Desde el punto de vista económico, hemos asistido al ocaso de sectores de actividad que han sido buques insignia tradicionales que han configurado el desarrollo económico vasco durante generaciones: siderurgia, industria naval, pesca y otros. Asimismo, hemos vivido los efectos de reconversiones industriales que han generado traumáticas secuelas y cicatrices en nuestro territorio. Hemos sido testigos de una sociedad sumida en un mar de incertidumbres que ha estado sacudida por el maremoto del desempleo y que ha obligado a impulsar políticas valientes de regeneración económica y territorial. Al mismo tiempo, en esta disyuntiva, durante este período, ha habido que desarrollar políticas de choque para hacer frente a las bolsas de pobreza que en ese momento desgarraban parte del tejido territorial y social de nuestra comunidad.

Pero, si desde el punto de vista económico y territorial hemos asistido a un cambio espectacular, qué decir desde el punto de vista demográfico y social. Aunque la memoria suele ser bastante selectiva y tendemos a olvidar demasiado rápidamente, ¿qué decir de la «revolución demográfica» habida desde principios de los años 80? En poco menos de 20 años hemos visto decaer las tasas de natalidad hasta el extremo de no cubrir las tasas de reemplazo, hemos visto «adelgazarse» instituciones tan fundamentales como la familia, de tal modo que utilizar categorías otrora usuales como la de Familia Extensa, parece poco menos que un sarcasmo. Hemos envejecido a una velocidad

1. SARRERA

Begi kolpe bakar batean azken urteotan bizi izan ditugun aldaketan izaera eta ezaugarriak biltzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Egunez egun aldaketa txikiak ikustera ohitu egin gara. Aldaketa horiek, nolana ere, amaierarik gabeko errutinan hondar aleak baino ez dira. Egunerokotasunak, hain zuzen, behin eta berriz errepikatzen diren jokabideak ditu oinarri. Jokabide-ilara horrek, beraz, irudizko linealtasun bat sortu ohi du denboran barrena. Hori gertatzen da, hein batean, izaki bizidunen egitura psikologikoak zalantza sortzen duten gauzengandik ihes egiten duelako. Egitura horrek, halaber, arrisksutzat jotzen duten eta pertsonen nahiz gizartearen egonkortasuna kinka larrian jar ditzaketen kontuak desagerrarazi ohi ditu.

Bizi Baldintzei buruzko Inkestak osatzen duen talaiatik so, azken urteotan gertatu izan diren aldaketak ikaragarri handiak eta errotikoak izan direla antzeman dezakegu. Izan ere, gertuko iraganeko denbora-tarteetan trinkoenetako bat bizi izan dugu. Gure egunerokotasunak beti berdina den osotasuna duela dirudien arren, eta Euskal Autonomia Erkidegoa historian barrena nolabaiteko jarraipen-zentzuan busti badu ere, mintzagai dugun 1989-2004 denbora-tartea benetan traumatikoa izan da. Alderdi ekonomikoari dagokionean, tradizioan ondo aski erroturik egon diren hainbat jarduera-sektoreen gainbehera bizi izan dugu: siderurgia, itsasontzigintza, arrantza, eta abar. Horiek guztiek Euskadiko garapen ekonomikoa zizelkatu izan dute belaunaldiz belaunaldi. Era berean, hainbat industria-birmoldaketaren ondorioak bizi izan ditugu. Ondorio latzak, gure lurraldean hainbat arrasto utzi izan dituztenak. Zalantza betetako itsaso batean igerian aritu den gizartea ikusi dugu, langabeziaren itsasikarak astindutako itsasoan. Urgainera ateratzeko, hortaz, ekonomia nahiz lurraldea birsortzeko politika ausartak bultzatu behar izan ditu gure gizarteak. Bien bitartean, disjuntiba horretan, mintzagai dugun denbora-tartean, aurrez aurreko politikak garatu behar izan dira pobrezia-poltsei aurre egin ahal izateko. Poltsa horiek, hain zuzen, gure lurraldearen eta gure erki-degoko gizartearen zuntza urratzen ari ziren.

Ekonomiari eta lurraldeari dagokionean goitik beherako aldaketa bizi izan badugu, zer esanik ez demografiari eta gizarteari dagokionean. Normalean, nahi duguna baino ez dugu gogoan hartzen, eta gauzak oso azkar ahaztu ohi ditugu. Hala ere, zer esan genezake 80. hamarkadaren hasieratik gertatu den «iraultza demografikoari» buruz? 20 urte baino gutxiagotan jaiotza tasek hondoak jo dute. Hainbeste jaitsi dira non ordezkatzeko-mailara ez garen heltzen. Familiaren moduko funtsezko instituzioak «mehetu» egin dira. Antzina familiak oso handiak izaten ziren, gaur egun, ordea, ezta urrunetik ere. Izugarritzko abiaduran zahartu gara.

de vértigo y, en los últimos años, hemos visto llegar gente de otros continentes hasta el punto de hacer obsoleto el propio concepto de Inmigración, tal y como lo utilizábamos a principio de los años 80, para referirnos a la gente que, procedente del resto del Estado venía a vivir entre nosotros y nosotras.

No digamos nada de lo sucedido desde el punto de vista de aquel conjunto de cambios que de forma más sutil, si se quiere, más velada, no tan evidente, han modificado definitivamente la estructura social de la sociedad vasca. La difuminación del sentido y significado de conceptos como el de género, la incidencia de cambios en la estructura y composición familiar, la incorporación de la mujer al mundo del trabajo y otros procesos afines han sido una bomba de espoleta retardada que ha provocado una transformación radical en los roles y funciones de nuestra sociedad. Lo mismo puede decirse en el mundo del trabajo, la obsolescencia prematura de una parte importante de la clase trabajadora, unido al incremento de la esperanza de vida, ha supuesto que, más allá del hecho demográfico en sí mismo, nos encontremos con desafíos como el de inventar una función social novedosa para dar sentido a la vida de una gran cantidad de población que, prematuramente, necesita cubrir el vacío dejado por la jubilación anticipada y necesita encontrar nuevos sustitutos funcionales que den sentido y coherencia a su vida.

No es extraño que en este contexto de reducción generalizada del tiempo de trabajo, la Sociedad del Ocio haya irrumpido con una fuerza inusitada. Tal y como se verá más adelante en esta presentación, las actividades vinculadas al ocio han emergido con fuerza inusitada modelando los estilos de vida de gran parte de la población vasca. No puede olvidarse que la necesidad de ampliar el horizonte vital de la población, en un mundo aparente, de infinitas posibilidades, concuerda con las tendencias más profundas del ser humano y, en este sentido, la población vasca no es una excepción.

En definitiva, lo dicho anteriormente no es sino un esbozo provisional de una realidad evidente y que nos permite afirmar sin ningún género de dudas que en menos de 20 años se ha producido una transformación radical de la sociedad vasca de tal magnitud, que ha afectado a todas esferas de la vida económica y social.

Sin embargo, debemos decir que los esquemas interpretativos de esta realidad cambiante no han ido de la mano de los propios acontecimientos. Aun reconociendo, en mayor o menor medida, la magnitud de las transformaciones habidas en los últimos años, seguimos juzgando la realidad vasca con esquemas interpretativos del pasado. Seguimos viendo a la sociedad vasca con los anteojos de la vieja sociedad industrial en parte ya periclitada. Somos deudores y deudoras de viejos conceptos y formas de ver la realidad, sin darnos cuenta que hemos entrado en una nueva fase en la que emergen nuevos interrogantes, nuevas posibilidades. Hemos agotado el ciclo de un modo de producción industrial sustentado sobre rígidas divisiones sociales que contraponían mundos antagónicos dejando su impronta en nuestro territorio y en las formas de ver nuestra sociedad. Ya no tiene sentido hablar de contraposiciones campo-ciudad, en el sentido de entender estos conceptos como dos realidades de naturaleza distinta. En la actualidad, lo rural se entiende desde la lógica expansiva de un mundo urbano que necesita expansionarse y que ha transformado el paisaje rural en un medio de descongestión residencial.

En los últimos años ha aparecido innumerable literatura que trata de comprender las transformaciones producto de la

Azken urteotan beste kontinenteetako jendea etorri da gurea. Hori dela eta, inmigrazioaren kontzeptua aldatu egin da, izan ere, 80. hamarkadaren hasieran Euskadira heldu ziren etorkinak Estatuko beste erkidegoetatik baitzetozen.

Horiez gain, badira beste eragile batzuk ere Euskadiko gizartearen egitura behin betikoz aldatu dutenak. Aldaketa sotilagoak izan dira, ez hain agerikoak. Generoaren moduko hainbat kontzepturen zentzua eta esanahia aldatu egin dira, familietako egitura eta eraketa aldatu egin dira; emakumezkoa lan munduan sartu da. Faktore horiengatik eta antzerako prozesuengatik gure gizarteko eginkizunak errotik aldatu egin dira. Gauza bera gertatu da lan munduan. Langile askok behar baino arinago hartu behar izaten dute erretiroa eta, gero eta luzeago bizi gara. Hori guztiagatik, demografiaren haraindi, erronka latz bati egin behar diogu aurre: zer egin dezakegu behar baino arinago erretiroa hartu duten pertsona horien bizitza betetzeko? Pertsona horiek erretiroa hartu eta sekulako hutsunea sentitzen dute beren bizitzetan. Hori dela eta ordezkio funtzional berriak topatu behar ditugu beren bizitzek zentzua eta koherentzia izan dezaten.

Ez da harrizkoa, beraz, Aisialdiako Gizarteak ez-ohiko indarrez sartu izana lanak utzitako denbora libre hori guztia betetzera. Aurrerantzean ikusiko dugun moduan, aisialdiarekin lotutako jarduera anitz sortu dira. Jarduera horiek guztiz egituratu dute Euskadiko herritarren bizimodua. Ezin dugu ahaztu herritarrek bizitzeko behar duten aukera esparrua zabaldu egin behar dugula. Izan ere, mundu honek, antzaz, amaigabeko aukera kopurua eskaintzen baitu eta aukera horiek munduko izaki bizidunen joerarik sakonenekin bat datoz, baita Euskadiko herritarrekin ere.

Azken finean, aurretik esan duguna begien bistako errealitatearen behin-behineko iruzkina baino ez da. Iruzkina hori oinarri hartuta baieztatu dezakegu, zalantza izpirik gabe, 20 urte baino gutxiagotan Euskadiko gizartearen errotik aldatu dela eta aldaketa horrek ekonomi eta gizarte esparruetako bizimoduari eragin diola.

Nolanahi ere, aitortu behar dugu errealitate aldakor hau interpretatzeko eskemak ez direla, beti, gertakizunekin bat etorri. Azken urteotan, hein handi edo txikian, gertatu izan diren aldaketen neurria hauteman badugu ere, antzinako eskemak baliatzen dihardugu Euskadiko errealitatea epaitzeko. Euskadiko gizartearen gizarte industrial zaharraren eta ia desagertuaren betaurrekoekin begiratzen diogu. Kontzeptu zaharren eta errealitatea ikusteko modu zaharren zordun gara. Ez gara konturatzen fase berriari sartu garela, non galdera eta aukera berriak sortu diren. Gizartearen mailaketa trinkoak oinarri zituen produzitzeko modu industrial hark. Ziklo hori agortu egin dugu. Aipatu gizarte-mailek aurrez jarri zituzten kontrako bi mundu eta horrek bere arrastoak utzi zuen gure lurraldean nahiz gure gizartearen ikusteko moduetan. Landa-hiria kontrajarriari buruz hitz egiteak, dagoeneko, ez du zentzurik, bi kontzeptu horiek ez baitatoz bi errealitate ezberdinetatik. Gaur egun, hiriko jendeak lekua behar du, eta landatara joaten da sarri airea hartzera. Landak, gainera, hiriko aglomerazioaren korapiloa askatzeko balio izan du.

Globalizazioaren eraginez hainbat aldaketa sortu dira. Aldaketa horiek ekoizteko faktoreak lekuz aldatzea eragin

globalización que han impulsado la movilidad de los factores de producción. Agotado el ciclo industrial que contaba con la existencia de materias primas y fuentes de energía barata, el nuevo modelo emergente ha otorgado a los aspectos intangibles un papel preponderante. Se puede decir que lo decisivo del momento actual desde el punto de vista económico y social es que, mientras en el esquema tradicional, economía y política aparecían como dos instancias separadas claramente diferenciadas: producción-reproducción social, en la nueva economía del conocimiento en la que parece que estamos inmersos, las condiciones político-sociales son determinantes para el éxito económico del sistema.

Como señala Richard Sennet, estamos en el Capitalismo Social en el que variables como: educación, creatividad, conocimiento, motivación..., son determinantes para las organizaciones modernas. El problema radica en que este tipo de variables por su propia naturaleza hacen referencia a condiciones extrínsecas al sistema económico, pertenecen al ámbito de las condiciones políticas, sociales y culturales que coadyuvan al éxito económico pero que guardan con él una relación un tanto ambigua. Como dice Giles Lipovetsky en su célebre libro *la Era del Vacío*, lo decisivo del mundo actual desde el punto de vista cultural es que éste ha sustituido la *ética protestante*, característica del mundo industrial y sustentada sobre el esfuerzo, el ahorro y la gratificación diferida, por la *ética de la seducción* donde, como su nombre indica, prima la capacidad para atraer como mecanismo fundamental para crear lealtades y promover adhesiones personales y sociales.

Este cambio de paradigma tiene enormes consecuencias desde el punto de vista de la comprensión y significado de nuestras sociedades. Aspectos como motivación o creatividad funcionan en sistemas y organizaciones en los que la incentivación aparece como mecanismo de adhesión fundamental de cara a adquirir un nivel de excelencia; pero, a su vez, esto difumina mucho más la tenue raya de separación del mundo profesional y la vida privada, dado que las motivaciones en particular y los sistemas de recompensa en general, trascienden las demandas laborales y alcanzan al ámbito de la vida diaria haciendo de las condiciones de vida en general objetivo prioritario de sus reivindicaciones. No es extraña la proliferación de conceptos como: Capital Social, Responsabilidad Social Corporativa, Gobernanza y otros similares, son anunciadores de este cambio de paradigma al que nos referimos. La planificación y diseño de lo que algunos y algunas denominan Territorios Inteligentes, para referirse a esta nueva sociedad emergente a la que estamos abocados y abocadas, depende en gran parte de la integración exitosa de diferentes subsistemas: económico, político y social. Las recientes cumbres celebradas en Lisboa o en Goteborg insisten en esta misma dirección a la hora de definir los objetivos de las políticas europeas en escena.

Todo esto nos lleva a poner de relieve la importancia alcanzada por aquellas dimensiones y aspectos relacionados con el entorno y las condiciones de vida tal y como son percibidas por los sujetos. Hace ya muchos años un famoso sociólogo, William Thomas, advertía que *si los individuos perciben una realidad como verdadera (aun no siéndolo, el añadido es nuestro), será real en sus consecuencias*. Esta idea es importante para entender la trascendencia que la Encuesta de Condiciones de Vida tiene en aras a comprender las transformaciones que han acaecido en la sociedad vasca en los últimos años.

dute. Hori guztia azaldu nahian, hainbat eta hainbat liburu sortu dira azken urteotan. Ziklo industrialak lehengaiak eta energia iturri merkeak zituen, baina horiek guztiak agortu egin dira. Horren aurrean, sortu berri den eredu berriak punta-puntako garrantzia eman dio uki ezin daitezkeen alderdiei. Ekonomiari eta gizarteari dagokionez, eskema tradizionalean ekonomia eta politika argi eta garbi banandutako bi instantzia ziren: ekoizpena eta gizarte-erproduktzioa. Egun bizi dugun ezagutzaren ekonomia berrian, aitzitik, baldintza sozio-politikoak erabakigarriak dira sistemak arrakasta ekonomikoa izan dezan.

Richard Sennetek agertzen duen moduan, egun Gizarte Kapitalismoa bizi dugu. Kapitalismo horretan, hezkuntzak, sormenak, ezagutzak, motibazioak, eta gisa horretako aldagaiak, erabakiorrak dira antolakunde garaikideentzako. Arazo bat dago, izan ere, aldagai mota horiek, euren izaera dela-eta, sistema ekonomikoaren baitako baldintzei egiten diete erreferentzia. Aldagai horiek baldintza politikoen, sozialen eta kulturalen alorrekoak dira. Baldintza horiek funtsezkoak dira arrakasta ekonomikoa lortzeko baina, aldi berean, lotura anbigua dute arrakastarekin berarekin. Giles Lipovetskyk *Era del Vacío* bere liburu txit gorenean agertzen duen moduan, gaur egungo munduan, kulturari dagokionean bederen, sedukzioaren etikak etika protestantearen lekua hartu du. *Etika protestantea* mundu industrialaren ezaugarrietako bat izan da. Ahalegina, aurrezte eta esker ona zituen oinarri. *Sedukzioaren etikak*, bere izenak ongi aski agertzen duen moduan, kalitatea lehenesten du leialtasuna sortzeko bide moduan, baita pertsonen arteko nahiz gizarte mailako loturak sustatzeko ere.

Paradigma aldaketa horrek ondorio nabarmenak ditu gure gizarteetako esanahiengan eta ulermenarengan. Motibazioa edo sormena bezalako alderdiek sistematan eta antolakundeetan funtzionatzen dute. Sistema eta antolakunde horien baitan, gogoia piztea oinarritzko lotura-mekanismo bilakatzen da bikaintasun mailara heldu ahal izateko. Baina, era berean, horrek guztiak difuminatu egiten du profesionalen mundua eta bizitza pribatua banatzen duen marra iluna. Motibazioek eta errekonpentsa sistemek, laneko eskaeretik haraindi doaz, eta eguneroko bizitza zipriztindu egiten dute. Ondorioz, bizi baldintzak euren errebindikazioen xede nagusi bilakatzen dira. Ez da harrizkoa hainbat kontzeptu berri sortzea: Gizarte Kapitala, Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Gobernantza, eta abar. Kontzeptu horiek mintzagai dugun paradigma-aldaketa honen iragarle dira. Batzuek Esparru Azkar deritzote egun sortzen ari den gizarte berri honi. Aipatu berri ditugun esparru horiek planifikatu eta diseinatu ahal izateko, hainbat azpisistema ongi integratu behar dira, besteak beste: sistema ekonomikoa, politikoa eta soziala. Lisboa edo Goteborgen berriki egin izan diren gailurretan, aipatu berri dugun hariari heltzen diote abian dauden Europa mailako politiken xedeak zehazteko orduan.

Hori guztiagatik nabarmendu egin behar dugu dimentsio horiek hartu duten garrantzia. Era berean, inguruarekin eta bizi kalitatearekin zerikusia duten alderdiak gailendu behar dira, subjektuek ikusten dituzten moduan, noski. Duela urte asko, William Thomas soziologo entzutetsuak gauza batez ohartarazi zigun: *pertsonen errealitate bat benetakotzat jotzen badute (nahiz eta benetakoak izan ez, gehitu dugun hauxe gure hitzak dira), ondorio errealak izango ditu*. Azken ideia horri helduta Bizi Baldintzei buruzko Inkestak duen garrantzia ulertu ahal izango dugu. Lagungarri gertatuko zaigu Euskadiko gizartean azken urteotan gertatu diren aldaketak ulertu ahal izateko.

2. LA PERSPECTIVA DE ANÁLISIS DE LAS ENCUESTAS DE CONDICIONES DE VIDA

2.1. Breve justificación metodológica

Aunque no fuera más que por el hecho de disponer de una herramienta como la *Encuesta de Condiciones de Vida*, que ya de por sí justifica su valor como instrumento de diagnóstico y análisis de la sociedad vasca, qué decir si además poseemos una herramienta que ha venido realizándose desde 1989 hasta nuestros días de forma ininterrumpida. Pero, siendo importante esto, mucho más es el hecho de disponer de información acerca de una serie de temas relacionados con la vida privada y las condiciones de vida en general, tal y como son percibidas por la población.

Es evidente que en la actualidad existen excelentes bases de datos y sistemas de indicadores que nos presentan una radiografía bastante exacta de la realidad. Sin embargo, pocas veces nos encontramos con información relativa a la vivencia que la población vasca tiene acerca de sus condiciones de vida en su conjunto. En este sentido, la *Encuesta de Condiciones de Vida* constituye una excelente atalaya que permite observar los cambios fundamentales que han afectado a la sociedad vasca en los últimos años.

Aparentemente, este tipo de encuestas abordan temáticas inconexas entre sí, en ellas se incluyen aspectos relacionados con la vida familiar y relacional, con el nivel de consumo en el hogar o con el grado de seguridad percibida en el entorno inmediato, por no citar más que unas pocas dimensiones. Sin embargo, estos aspectos aparentemente inconexos, adquieren relevancia a medida que todos ellos persiguen contemplar la realidad diaria de la población vasca desde una perspectiva global con el objetivo de identificar tanto la calidad de las condiciones materiales de vida como aquellas relacionadas con el entorno vivencial y afectivo. Dada la diversidad temática de las Encuestas de Condiciones de Vida a continuación se recoge una breve explicación acerca del tipo de información recogida en cada una de las dimensiones que aparecen:

Relaciones familiares

En este apartado se recogen todos aquellos aspectos relacionados con el *grado de sociabilidad* a diferentes niveles: familiar, vecinal y de amistad. Las variables recogidas tratan de medir la naturaleza e intensidad de las relaciones tanto con la familia próxima como con los parientes lejanos, vecinos y vecinas y amigos y amigas.

Medio ambiente social

Se trata, como su nombre indica, de medir diversos aspectos problemáticos que tienen que ver con la calidad del medio ambiente inmediato: ruidos, seguridad, contaminación. La Encuesta de Condiciones de Vida enfatiza la percepción del medio ambiente social teniendo en cuenta el grado de satisfacción y de seguridad que ofrece a sus residentes.

Equipamiento de la vivienda

Esta dimensión refleja el nivel de consumo de las familias vascas. Asimismo, a través del análisis del equipamiento de

2. BIZI BALDINTZEI BURUZKO INKESTEN ANALISI-IKUSPEGIA

2.1. Justifikazio metodologikoa labur-labur

Bizi Baldintzei buruzko Inkesta bezalako tresna eskuan edukitze hutsak balio itzela du Euskadiko gizartearen diagnostikoa eta analisia egin ahal izateko. Horrez gain, badugu 1989. urtetik etengabe martxan egon den tresna bat ere. Aipatutakoa biziki garrantzitsua den arren, tresna horrek garrantzi handiko kontuen berri ematen digu, hala nola, bizitza pribatuarekin eta bizi baldintzekin oro har zerikusia duten hainbat gai. Tresnak, bide batez, herritarren ikuspegitik bistaratzen dizkigu gai horiek guztiak.

Argi dago gaur egun datu-base eta sistema adierazle itzelak daudela. Horiek guztiak errealitatearen benetako erradiografia eskaintzen digute. Hala eta guztiz ere, gutxi batzuetan baino ez dugu aurkitu euren bizi baldintzen gain Euskadiko herritarrek duten usteari buruzko informazioa. Zentzu horretan, *Bizi Baldintzei buruzko Inkesta* atalaia bikaina da, nondik Euskadiko gizartearen gain azken urteotan eragina izan duen funtsezko aldatetarik ikus ditzakegun.

Dirudienez, gisa horretako inkestek euren artean loturarik ez dituzten gaiak jorratzen dituzte. Galdetegi horietan, familiako bizitzarekin eta pertsonen arteko harremanekin zerikusia duten alderdiei buruz galdetu ohi zaie herritarrei. Baita, besteak beste, etxeko kontsumo-mailarekin eta gertuko inguruaren segurtasun-mailarekin zerikusia duten kontuen inguruan itaundu ere. Alderdi horiek guztiak euren artean inolako loturarik ez dutela dirudien arren, guztiak xede bakarra dute: Euskadiko herritarren eguneroko bizitza modu orokorrean jasotzea. Inkesta horiek dirrela medio, batetik, bizitzeko baldintza materialen kalitatea hauteman nahi da eta, bestetik, bizitzeko inguruarekin nahiz harreman-inguruarekin zerikusia duten alderdiak landu. Bizi Baldintzei buruzko Inkestak hamaika gairi buruzkoak izan daitezke. Ondoren, inkestatan ageri diren dimentsioetako bakoitzak jaso ohi duen informazio mota azaldu egingo dugu labur-labur:

Familiako harremanak

Atal honetan, *sozialitate mailarekin* zerikusia duten alderdiak jasoko ditugu. Hainbat maila daude: familiakoa, bizilagunen artekoa eta adiskideen artekoa. Jasotako aldagaien bidez, gertuko familiarekin, urruneko senideekin, bizilagunekin eta adiskideekin izan ohi ditugun harremanak nolakoak diren eta zer intentsitatekoak diren neurtu nahi da.

Gizarte-ingurumena

Izenak ongi aski dioen bezala, gertuko ingurumenaren kalitatearekin zerikusia duten hainbat arazo neurtzean datza, hala zaratak, nola segurtasuna edo kutsadura. Bizi Baldintzei buruzko Inkestak gizarte-ingurumenaz dugun ustea azpimarratzen du. Horretarako, bizitokiak bertan bizi direnengan sortzen duen poztasun eta segurtasun maila hartzen ditu kontuan.

Bizilekuko ekipamendua

Dimentsio horrek Euskadiko familien kontsumo-maila islatzen du. Era berean, bizilekuko ekipamendua aztertzen ba-

la vivienda se puede conocer la emergencia de nuevos estilos de vida y nuevas necesidades. Así, a través de la Encuesta de Condiciones de Vida es posible conocer en qué medida se ha generalizado el consumo de las tecnologías de la información y cuál ha sido la velocidad de este proceso.

Equipamiento del entorno

La disponibilidad o no de servicios complementarios en el entorno próximo al hábitat residencial constituye una de las fuentes principales de satisfacción personal. La calidad de vida aumenta significativamente con la disponibilidad de dotaciones equipamentales en las inmediaciones al lugar de residencia aumentando, por ende, el valor otorgado al área en cuestión.

Recursos económicos

La valoración de la situación económica es clave a la hora de analizar las condiciones de vida. Lo mismo que sucede en otras dimensiones de esta encuesta, existe una pléyade de estadísticas que muestran la evolución de la estructura económica de la C.A. de Euskadi: renta, mercado de trabajo, cuentas industriales... En la ECV se recoge la percepción subjetiva de la situación económica y, al mismo tiempo, se indaga en ese ámbito un tanto recóndito y oculto como es el de las *restricciones económicas* que sufren las familias vascas. Se trata por lo tanto, de un punto de vista complementario que es necesario conocer si se quiere tener una visión realista de la evolución de las condiciones de vida de la sociedad vasca.

Educación, formación e instrucción

Este apartado está orientado básicamente al análisis de aquellos aspectos educativos que aumentan las habilidades instrumentales de la población: manejo de idiomas, conocimiento de tecnologías informáticas..., o que están al servicio de la mejora de las condiciones de vida y capacitación personal: asistencia a cursos de extensión universitaria y similares.

Estado de salud

Se trata de medir aquellos aspectos relacionados con la salud que inciden en la vida diaria, bien porque limitan la capacidad de los individuos para desenvolverse y desarrollar una vida normal, bien porque afectan al uso de los servicios sanitarios. Básicamente en este apartado se mide la frecuencia de utilización de los servicios sanitarios por parte de la población vasca y el grado de independencia funcional en aras a poder desenvolverse en la vida ordinaria sin problemas ni cortapisas.

Condiciones de trabajo

Idénticamente a otras dimensiones el análisis de las condiciones de trabajo que se incluye en la ECV se refiere a aquellos aspectos que afectan a la calidad de vida. Básicamente las variables utilizadas en este apartado inciden sobre aspectos fundamentales que están relacionados con las condiciones materiales del trabajo: movilidad, condiciones ambientales y el tipo de jornada.

dugu, bizitzeko estilo berriak nahiz bizi behar berriak sortu ote diren jakin ahal izango dugu. Beraz, Bizi Baldintzei buruzko Inkestari esker, informazioaren teknologiak zer neurritan zabaldu egin diren jakin ahal izango dugu, baita prozesu hori zein abiaduratan gertatu den ere.

Inguruaren ekipamendua

Etebizitzaren inguruan zerbitzu osagarriak edukitzea edo ez edukitzea da, hain zuzen, jendea gehien poztu dezakeen gauzetako bat. Bizi kalitatea nabarmen handitzen da etxetik gertu gisa horretako ekipamenduak ditugunean. Horrez gain, etxe-inguruko esparruaren balioa handiagoa izango da zerbitzu osagarri asko baditu.

Baliabide ekonomikoak

Egoera ekonomikoa baloratzeak berealdiko garrantzia du bizi baldintzak aztertzeke orduan. Inkesta honetako beste dimentsiotan gertatu izan den moduan, hamaika estatistikak Euskadiko egitura ekonomikoaren eboluzioa erakusten dute: errenta, lan merkatua, kontu industrialak, eta abar. Bizi Baldintzei buruzko Inkestan egoera ekonomikoaren gaineko iritzi subjektiboa bildu da. Era berean, Euskadiko familiek pairatu ohi duten *murrizketa ekonomikoa* izeneko ezkutuko bazter horretan hausnarketa egin da. Ikuspuntu osagarria dugu aurrez. Ikuspuntu hori ezagutu behar dugu Euskadiko gizartearen bizi baldintzek nola eboluzionatu duten modu errealistan ikusi nahi badugu.

Hezkuntza, trebakuntza eta eskolatzeta

Atal hone, nagusiki, herritarren tresna-gaitasunak areagotzen dituzten hezkuntzaren alorrak aztertu ditu: hizkuntzak jakitea, teknologia informatikoak ezagutzea... Era berean, herritarren bizi baldintzak eta gaitasun pertsonalak hobetzen dituzten alorrak ere landu ditu: herritarrek unibertsitate-mailako ikasketak egiten dituzten ala ez, eta antzerakoak.

Osasun egoera

Osasunarekin zerikusia duten eta eguneroko bizitzaren gain eragina duten alderdiak neurtu nahi dira, bai gizabanakoek egunerokoari eusteko eta bizimodu normalaz gozatzeko duten gaitasuna mugatu egiten duten horiek, bai osasun zerbitzuak erabiltzearen gainean eragina duten horiek. Atal honetan, funtsean, Euskadiko biztanleek osasun zerbitzuak zer nolako maiztasunaz erabiltzen dituzten neurtu da, baita eguneroko jarduerak arazorik gabe gauzatzeko Euskadiko herritarrek duten independentzia maila ere.

Lan baldintzak

Beste dimentsiotan gertatu bezala, BBIn aztertzen diren lan baldintzak bizi kalitatearen gainean eragina duten alderdiei buruzkoak dira. Oro har, atal honetan baliatu diren aldagaiek laneko baldintza materialekin lotura duten funtsezko alderdiak lantzen dituzte: mugikortasuna, ingurumen-baldintzak eta lanaldi mota.

Ocio y tiempo libre

Si alguna dimensión denota la capacidad de cambio de una sociedad es la relativa al Ocio y Tiempo Libre. En este sentido, la C.A. de Euskadi no es una excepción. Esta dimensión está estrechamente relacionada con el cambio de hábitos, con los estilos de vida emergentes y, en definitiva, con la cultura de una sociedad. La emergencia de nuevas formas de ocio, la irrupción de nuevos valores, hace de esta dimensión un indicador altamente sensible a las tendencias de cambio.

Relaciones sociales

Bajo este nombre un tanto etéreo y sutil, se esconden aspectos de diversa naturaleza que además de estar relacionados con las condiciones de vida, miden el grado de compromiso que tiene la población como ciudadanos activos y ciudadanas activas. En este sentido, el análisis del grado de participación en asociaciones voluntarias y de pertenencia constituye el sustrato básico sobre el que se asienta el capital social de una sociedad. Idénticamente, la asistencia a actos religiosos o políticos manifiesta el grado de vigencia de estas instituciones. En un nivel más lejano, la existencia o no de pautas de sociabilidad relativas a las formas de diversión pone en valor la calidad de vida disfrutada por los sujetos desde el punto de vista colectivo.

Dada la naturaleza, amplitud y diversidad de las temáticas descritas, y a efectos de clarificación conceptual y de síntesis, se han agrupado las diez dimensiones anteriormente descritas en seis, siguiendo el esquema que se presenta a continuación (ver gráfico 1):

Aisia eta aisialdia

Aisialdiak eta Denbora libreak argi eta garbi erakusten dute gizarte batek aldatzeko duen gaitasuna. Baita Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan ere. Dimentsio horrek lotura zuzena du ohitura aldaketarekin, sortzen diren bizimodu berriekin eta, azken batean, gizarte baten kulturarekin. Aisialdiko jarduera berriak sortzen direnez, balore berriak eratzten direnez, adierazle horrek aldaketarako joerak agertu ohi dizkigu.

Gizarte harremanak


Deizio sotil eta ukiezin horren azpian, hainbat motatako alderdiak ezkutatu ohi dira. Alderdi horiek, bizi baldintzekin lotura estua izateaz gain, herritar aktiboek hartu ohi duten konpromiso maila neurtzen dute ere. Zentzu horretan, herritarrek elkarte boluntarioetan zer neurritan parte hartzen duten aztertzea gizarte baten kapital-sozialaren habe nagusia da. Era berean, jarduera erlijiosoetan edo politikoetan parte hartzen duten herritarren kopuruak argi erakusten du instituzio horiek indarrean dauden ala ez. Aparteko maila batean, dibertitzeko moduekin zerikusia duten soziabilitate arauak egoteak ala ez egoteak, agerikoa egiten du, talde ikuspegitik begiratuta, subjektuek gozatutako bizi kalitatea.

Deskribatu ditugun gaiak izaera, zabalera eta aniztasun handikoak direnez, arestian aipatutako hamar dimentsioak sei multzotan banatu ditugu. Horrela, ondoko eskemari esker argiago eta laburrago ikusi ahal izango dituzue landu berri ditugun kontzeptuak (1. grafikoa ikusi):

Esquema metodológico de la Encuesta de Condiciones de Vida de la C.A. de Euskadi, 1989-2004

1

Euskal AEko Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren eskema metodologikoa, 1989-2004



Iturria: hemen egindakoa.

Fuente: Elaboración propia.

Tal y como se aprecia, el objetivo del esquema metodológico es construir una herramienta que nos permita medir cada una de las dimensiones, de tal forma que podamos tener, por una parte, una visión global del área en cuestión y, por la otra, una visión pormenorizada del comportamiento de cada uno de los indicadores utilizados. No es necesario decir que este esquema metodológico del gráfico 1 (como cualquier otro) es un intento de reducir el nivel de complejidad con el objetivo de ganar capacidad explicativa sobre un concepto *las Condiciones de Vida en la C.A. de Euskadi*. que, por definición, se escapa a su encasillamiento y acotación.

2.2. Metodología y técnicas de análisis

Para la elaboración del presente informe se ha recurrido al método de ponderación de variables con el objetivo de construir una *Escala de Condiciones de Vida* homogénea que exprese la intensidad de logro de cada una de las dimensiones consideradas. Para ello, se ha procedido de la siguiente manera:

En primer lugar, se ha partido del método de operacionalización de variables de Boudon y Lazarsfeld, con el objetivo de determinar las dimensiones y los indicadores más importantes pertenecientes a cada una de ellas.

En segundo lugar, se ha procedido a la normalización de las variables con el objetivo de construir una escala de puntuaciones homogéneas en la que cada indicador sea puntuado de 0 a 10 en consonancia con la menor/mayor calidad de vida alcanzada.

En tercer lugar, dada la naturaleza de las variables, nominales y ordinales, se ha procedido a la ponderación de las mismas con el objetivo de establecer su contribución al logro de la dimensión correspondiente. No es necesario decir que los criterios de ponderación de variables se sustentan sobre hipótesis que deben ser validadas a posteriori en el transcurso de la investigación.

En cuarto y último lugar, se ha elaborado un Índice «*General de Condiciones de Vida en la C.A. de Euskadi*» con el objetivo de situar la posición de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el período analizado 1989-2004.

El resultado de este proceso de operacionalización queda reflejado en la tabla 1 en la que aparecen cada una de las dimensiones objeto de estudio junto con las variables pertenecientes a ellas, cuantificadas según la puntuación alcanzada en la escala de Condiciones de Vida durante el período 1989-2004.

Creemos que del análisis global de los datos se desprenden visiones interesantes sobre los cambios acaecidos que, aunque muchos de ellos son conocidos a través de diferentes análisis parcelarios, al presentarse todos juntos adquieren una dimensión y una relevancia distinta.

Ikus daitekeen moduan, eskema metodologikoak dimentsio guztiak neurtzeko baliu dezakegun tresna eratzea du helburu. Horrela, alde batetik mintzagai dugun alorraren ikuspegi orokorra izango dugu eta, bestetik, baliatutako adierazleen jokabidea ikusi ahal izango dugu zehaztasun handiz. Esan beharrik ere ez dago 1. grafikoa eskema metodologikoa bidez (esaterako) zailtasun maila murriztu eta *Euskal Aeko bizi baldintzak* kontzeptua errazago azaldu ahal izango dugula. Aipatutako kontzeptuak, bidenabar, ohiko bere mugetatik ihes egiten du.

2.2. Metodologia eta analisisirako teknikak

Txosten hau egiteko, aldagaien haztapena izeneko metodoa baliatu da. Horrela, Bizi Baldintzen Eskala eratu da, mailaketa parekatua eta kontuan hartutako dimentsioetako bakoitzean atxikitako lorpen maila adierazten duena. Horretarako, ondoko prozedura baliatu dugu:

Lehenik eta behin, Boudon-en eta Lazarsfeld-en aldagaiei buruzko jarduketa-metodoa baliatu dugu. Metodo horren bidez, aldagai bakoitzaren dimentsioak eta adierazlerik garrantzitsuenak zehaztu ditugu.

Bigarrenik, puntuazio-mailaketa parekatua eratze aldera, aldagaiak normalizatu egin dira. Horrela, adierazle bakoitzak 0 eta 10 arteko puntuazioa jaso du, bizi kalitatea hobea ala okerragoa izan puntu bat ala beste eman zaio.

Hirugarrenik, aldagai nominalen eta ordinalen izaera kontuan hartuta, aldagaiak haztatu egin dira. Modu horretan dagokion dimentsioaren arrakastari zer neurritan lagundu dioten ezarri ahal izan da. Esan beharrik ez dago aldagaiak haztatzeko irizpideek hipotesiak dituztela oinarri, eta hipotesi horiek, ikerketak aurrera egin ahala, onetsi egin behar direla.

Azkenik, «Euskal Aeko Bizi Baldintzei buruzko Indize Orokorra» egin da, Euskal Autonomia Erkidegoak 1989-2004 epean zer leku duen jakiteko.

Jarduketa-prozesuaren emaitza 1. taulan islaturik ikus dezakegu. Taula horretan, ikertu izan diren dimentsio guztiak ageri dira, baita dimentsio bakoitzari dagozkion aldagaiak ere. Aldagai horiek zenbatetsi egin dira 1989-2004 denborartean Bizi Baldintzen mailaketa jaso duten puntuaren arabera.

Uste dugu datuak modu orokorrean aztertuz gero, gertatutako aldaketen gaineko ikuspegi interesgarriekin egingo dugu topo. Aldaketa horietako asko alorrez alor egindako hainbat azterketen bidez jakitera eman izan zaizkigun arren, guztiak batera ikustean bestelako dimentsioa eta garrantzia hartzen dute.

3 LAS CONDICIONES DE VIDA 1989-2004: DIAGNÓSTICO GLOBAL DE LA SITUACIÓN

A fin de tener una visión global de la evolución de las condiciones de vida en la C.A. de Euskadi durante el período 1989-2004, se ha elaborado la tabla 1 en la que aparecen 25 indicadores distribuidos en 6 grandes dimensiones tal y como se puede apreciar.

Los indicadores están distribuidos de acuerdo a su naturaleza, significación y coherencia teórica con cada una de las dimensiones. Los indicadores aparecen ordenados de acuerdo con la puntuación de mayor a menor alcanzada en la Escala de Condiciones de Vida correspondiente al año 2004. En la columna de la derecha aparece recogida la diferencia de puntuaciones correspondiente a los años 1989 y 2004 con el fin de apreciar la evolución de las condiciones de vida de forma individualizada, al margen de la tendencia general de la dimensión objeto de análisis. En la última fila aparece el Índice General de Condiciones de Vida de la CA. de Euskadi.

3. BIZI BALDINTZAK 1989-2004: EGOERAREN DIAGNOSTIKO OROKORRA

1989-2004 denbora-tartean Euskal AEko bizi baldintzek nola eboluzionatu duten modu orokorrean ikusteko asmoz, 1. taula osatu dugu. Bertan ikus daitekeen moduan, 25 adierazleak 6 talde handitan banatu daitezke.

Adierazleak izaeraren, esanguraren eta dimentsioekiko koherentzia teorikoaren arabera banatu egin dira. Adierazleak ordenan jartzeko, 2004. urteko bizi baldintzen eskalan lortu zuten puntu kopurua hartu da kontuan. Puntuazio handienetik txikienera doaz. Eskuinaldeko zutabeen, 1989 eta 2004 urteetako puntuazioen arteko aldea jaso dugu. Horrela, banan-banan ikus daiteke bizi baldintzek nola eboluzionatu duten, ikerketaren xedea den dimentsio orokorraren joera alde batera utzita. Azken lerroan, Euskal AEko Bizi baldintzen Indize Orokorra ageri da.

Cuadro Resumen de las Condiciones de Vida en la C.A. de Euskadi

1

Euskal AEko Bizi baldintzak Laburbiltzen dituen taula

KOD COD	INDIZEA ÍNDICE	1989	1994	1999	2004	ALD89/04 DIF ^a 89/04
I	BIZITZEKO BALDINTZA MATERIALAK CONDICIONES MATERIALES DE VIDA	5,6	5,7	6,4	6,2	0,6
	Eraikineko eta Ingurunekeo Zerbitzuak Servicios del Edificio y del Entorno	7,0	7,4	7,4	7,6	0,6
	Laneko Ingurunearen Baldintzak Condiciones del Medio Ambiente en el Trabajo	6,1	6,9	6,5	6,7	0,6
	Ekonomiari buruzko iritzi Subjektiboa Consideración económica subjetiva	5,1	4,5	6,4	6,4	1,4
	Etxebizitzaren ekipamenduei buruzko indizea Índice de equipamientos de la vivienda	5,8	6,4	6,4	6,3	0,6
	Egoera ekonomiko objektiboa Situación económica objetiva	5,9	4,9	7,2	5,8	-0,1
	Hizkuntzak jakitea Conocimiento de idiomas	3,8	4,3	4,7	4,6	0,8
II	HARREMANAK VIDA RELACIONAL	4,0	3,5	3,8	3,7	-0,4
	Harremanak gertuko senideekin Relaciones con la familia próxima	5,0	5,3	5,6	5,9	0,9
	Harremanak adiskideekin Relaciones con las amistades	3,9	3,8	4,5	3,6	-0,2
	Harremanak senitartekoekin Relaciones con los parientes	2,8	2,8	3,1	3,1	0,3
	Harremanak bizilagunekin Relaciones vecinales	4,4	2,3	2,1	2,0	-2,4
III	SEGURTASUNARI BURUZKO IRITZIA, INGURUAREN KALITATEA ETA INDEPENDENTZIA PERTSONALA SEGURIDAD PERCIBIDA, CALIDAD DEL MEDIO E INDEPENDENCIA PERSONAL	7,1	7,8	7,6	8,1	1,0
	Segurtasuna lapurreten eta erasoan aurrean Seguridad frente a robos y agresiones	8,6	9,0	9,3	9,4	0,8
	Euskadiko biztanleen autonomia funtzional maila Grado de autonomía funcional de la población vasca	7,6	7,3	7,4	7,0	-0,6

KOD COD	INDIZEA ÍNDICE	1989	1994	1999	2004	ALD89/04 DIF ^a 89/04
	Bizi dugun gizarte-inguruaren kalitatea Calidad del Medio Social en el que habita	5,6	6,5	5,9	6,8	1,1
IV	AISIALDIA, DENBORA LIBREA ETA BIZI KALITATEA OCIO, TIEMPO LIBRE Y CALIDAD DE VIDA	3,5	3,7	3,7	3,9	0,4
	Ettxeko aisialdiaren indizea: TV, Zinea, Musika Índice ocio doméstico: TV, cine, música	6,2	6,3	6,6	7,1	0,9
	Tragoak hartzea, poteoa egitea, gaupasan ibiltzea Ir de copas, poteo, alternar	4,0	5,0	4,8	5,7	1,7
	Irakurketaren indizea Índice lectura	4,1	4,4	4,6	4,8	0,7
	Kirol-jardueraren eta atari zabalean egindako jardueren indizea Índice actividad deportiva y aire libre	3,6	3,6	3,6	3,6	0,0
	Asteburuko bidaiak Viajes de fin de semana	1,8	1,7	2,4	2,5	0,6
	Ikuskizunetara joatearen indizea Índice asistencia a espectáculos	1,8	1,9	2,1	2,2	0,4
	Gurtu erlijiosoetara joatea Asistencia a cultos religiosos	2,9	2,6	1,7	1,5	-1,4
V	LANAREN GERTUTASUN-MAILA ETA IRAUNKORTASUNA ACCESIBILIDAD AL TRABAJO Y SOSTENIBILIDAD	5,1	4,8	4,4	4,2	-0,9
	Lanaren gertutasunari buruzko indizea (distantzia) Índice de accesibilidad al trabajo (distancia)	5,6	5,5	5,1	4,9	-0,7
	Lanak eragindako joan-etorrien iraunkortasuna Sostenibilidad por movilidad obligada por razones de trabajo	4,6	4,1	3,7	3,5	-1,1
VI	PARTE HARTZEA, ETXeko ARDURAKIDETZA ETA BIZI ASOZIATIBOA PARTICIPACION, CORRESPONSABILIDAD Y VIDA ASOCIATIVA	3,6	3,8	4,0	4,3	0,7
	Ettxeko ardurakidetzaren indizea Índice de corresponsabilidad doméstica	5,0	5,6	6,0	7,3	2,3
	Elkarteetako kide izatea Pertenenencia a asociaciones	3,2	3,3	3,4	3,0	-0,2
	Elkarteetan parte hartzea Participación en asociaciones	2,6	2,5	2,6	2,6	-0,1
	BIZI BALDINTZEN INDIZE OROKORRA ÍNDICE GENERAL DE CONDICIONES DE VIDA	4,8	4,9	5,0	5,1	0,2

* Baloreak 0 (txiki) eta 10 (handi) artekoak dira.

* Valores oscilan entre 0 (mínimo) y 10 (máximo).

Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat.

Antes de comenzar la descripción del comportamiento de las dimensiones por separado, conviene señalar que la evolución del Índice General de Condiciones de Vida de la C.A. de Euskadi ha mejorado, pasando de 4,83 en 1989 a 5,07 en 2004. En la medida que este índice compendia el comportamiento de diferentes dimensiones de muy diversa naturaleza, conviene tratar a cada una de estas dimensiones por separado. No obstante, ya adelantamos que del análisis conjunto de la escala se desprende la siguiente afirmación a modo de tesis central: **la mejora en las condiciones materiales de vida habida en el período 1989-2004, al pario de la bonanza económica habida en este lapso de tiempo, ha sido determinante a la hora de explicar la mejora de los indicadores. Por el contrario, se observa un cierto retroceso en aquel conjunto de indicadores relacionados con aquellos aspectos que tienen que ver con la**

Dimentsioen gorabeherak banan-banan azaltzen hasi aurretik, aipatu behar dugu Euskal AEko Bizi Baldintzen Indize Orokorra hobera jo duela, izan ere 1989. urtean 4.83 puntukoa zen eta 2004. urtean, aldiz, 5.07koa. Indize horrek izaera ezberdineko hainbat dimentsioen jokabidea jasotzen duenez, dimentsio horiek guztiak banan-banan lantzea ego-ki deritzogu. Nolanahi ere, esan genezake, eskala bere osotasunean aztertu eta ondoko baieztapena edo tesi nagusia ondoriozta daitekeela: **1989-2004 urteen artean bizi baldintza materialak hobetu egin dira, izan ere, aipatu-tako denbora tartean ongialdi ekonomikoa bizi izan baitugu. Baldintza materialen hobekuntza, beraz, funtsezkoa izan da adierazleetan gertatu den hobekuntza ulertzeko. Soziagarritasunarekin, iraunkortasunarekin eta gizarte-partaidetzarekin zerikusia duten alderdiei lotutako adierazleek, aitzitik, behera egin dute. Hau da,**

sociabilidad, con la sostenibilidad y la participación social. En definitiva en aquellos aspectos más intangibles e inmateriales que afectan a las condiciones de vida de la población vasca.

3.1. Condiciones materiales y recursos instrumentales

Se trata de una dimensión que combina diversos aspectos, en primer lugar, describe la percepción de las familias vascas de la situación económica desde el punto de vista de su impacto en la economía familiar; en segundo lugar, refleja los niveles de consumo de las familias, representados tanto por el nivel de equipamiento del hogar como de la disponibilidad de servicios y dotaciones a mano; por último, se ha incluido la variable *conocimiento de idiomas* en la medida que constituye un recurso instrumental que expresa la capacidad de adaptación al cambio.

Del análisis de las puntuaciones relativas a esta dimensión que, en conjunto, ha experimentado una mejora sustancial, se observa lo siguiente:

La mejora de las puntuaciones relativas a la situación económica de la población vasca es fiel reflejo del optimismo en el que hemos vivido en estos años en los que la economía vasca ha experimentado un crecimiento ininterrumpido. No obstante, la evolución de las puntuaciones muestra una diferencia fundamental entre la consideración que las familias vascas hacen de su situación económica particular, respecto a la opinión que les merece la situación económica en su conjunto. Así, podemos ver que en 2004, la *situación económica objetiva*, variable sintética que combina los ingresos netos familiares respecto al número de miembros, alcanza una puntuación de 5,77 (7,24 en 1999) denotando un talante relativamente pesimista; por el contrario, *la consideración económica subjetiva* que valora la existencia o no de restricciones y la necesidad de petición de ayuda, alcanza una puntuación de 6,44, sensiblemente mayor.

Un aspecto notable es la mejora experimentada en el ámbito del consumo, tanto desde el punto de vista individual (equipamiento del hogar) como colectivo (dotaciones equipamentales).

